| | |
|---|---|
| **Izenburua** | *Soziolinguistika gazteentzat* |
| **Formatua** | Tailerra |
| **Egilea** | Emun Aholkularitza |
| **Kontaktua** | emun@emun.eus / 943 711 847 |
| **Nori zuzendua** | DBHko ikasleei. Oro har, euskaldunak eta euskalduntzeko bidean dauden nerabe eta gazteei. |
| **Helburuak** | ● Gazteekin eta nerabeekin soziolinguistikaz eta psikolinguistikaz aritzea.<br>● Pentsatzen eta sentitzen dutena partekatzea eta ulertzea.<br>● Hizkuntza kontzientzia lantzea, aurreiritzien azterketa kritikoa egitea, iritzia eraikitzen laguntzea, hizkuntza-aniztasunaren balioa eta kudeaketa barneratzea, hizkuntza jarrerak eta portaerak lantzea, eta erabakira hurbiltzea (hiztun asertiborako bidea). Identitateaz gogoeta egitea. |
| **Oinarriak** | Gazteekin, euskararen erabileran eragiteko, soziolinguistikako oinarrizko ezagutzez hausnartzeko tailerra. Euskara eta euskaldunongan eragiten duten aldagaiak ulertu, lagunartean hizkuntza bat edo bestea aukeratzeak sortzen dituen sentipen eta kezkez hitz eginez. |
| **Metodologia** | ● Hausnarketa pertsonal eta kolektiboa.<br>● Segurtasun espazioa sortu, iritzi guztiek lekua izan dezaten eta sentitzen dutena identifikatzeko eta adierazi ahal izateko (emozioari hitza jarri).<br>● Pentsatzen duten abstrakzioa hitzetara ekartzen lagundu, galdera egokiak egin erantzunetara iritsi daitezen.<br>● Kontraesanak, inkoherentziak ikusten lagundu, baliabideak bilatzen eta argudioak josten lagundu.<br>● Ezintasunen aurrean, egiteko modu errealak irudikatu, entseatu. |
| **Denboralizazioa** | 4 saio, ordubetekoak, presentzialak edo online; hausnarketa partekatua edo moodle bidez |

| | |
|---|---|
| **Eranskinak** | Tailerraren inguruko informazioa:<br>https://www.emun.eus/hitzartzen/gure-saioak/ |
| **Oharrak** | • Berariazkoak: hartzaileari egokitutako saioak, edukietan zein erritmoan.<br>• Praktikoak: teoria eta praktika uztartuta, eginez ikasi.<br>• Erabilgarriak: egunerokoan aplikatzeko erantzunak.<br>• Errealak: partaideen bizipenetatik abiatuta.<br>• Parte hartzaileak: guztion artean eraikiz.<br>• Eraginkorrak: berehalako emaitzak, jarreren eta portaeren arteko hurbilketa. |